

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zuiako Udalbatzaren 2024ko martxoaren 14ko erabakiaren laburpena. Horren bidez, mendekotasun aitortua duten pertsonak, ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak edo horretarako izapideak egiten ari direnak bizilekuaren barruan zaintzeko langileak kontratatzeko diru-laguntzetarako deialdia egiten da

BDNS(Identif.): 749956.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/749956>).

Lehenengoa. Onuradunak

Zuian erroldatutako pertsonak, aitortutako mendekotasun egoeran daudenak, edo horretarako ebaluazio-prozesuan daudenak, edo ehuneko 65eko edo hortik gorako desgaitasun-maila egiaztatuta dutenak, eta hirugarren bat edo erakunde bat kontratatzen dutenak, bere bizilekuaren barruan behar dituen zaintza-lanak egin ditzan. Eskatzaileek oinarri hauetako 3. Ataleko baldintzak bete behar dituzte.

Bigarrena. Xedea

Aurrez aipatutako onuradunei, bizitza-kalitatea hobetzeko helburuarekin, beren bizilekuaren barruan laguntza pertsonala emango dien langileak kontratatzeak ekarritako gastuak ordaintzen laguntzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2024ko martxoaren 14an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Partidaren diru-zuzkidura 6.000,00 eurokoa da

Diru-laguntzaren zenbatekoa onuradunaren diru-sarreraren arabera (3.000,00 eurotik 30.000,00 eurora) eta kontratatutako langileen lan-jardunaren arabera (ehuneko 50 edo ehuneko 100) izango da, eta hileko 75 eurotik 350,00 eurorako izan daiteke.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Urteko iraileko azken egun baliodunear.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (izapideak/dirulaguntzak) edo oinarrietan azaltzen dira.

Murgia, 2024ko martxoaren 18a

Alkate-udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA